

KARMELE MUÑOZA ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

**ZIURTATZEN DOT:**

2009ko irailaren 4an udal honetako **Osoko Bilkureak** erabagi hau agindu dauela:

**7.- BBVA RENTING ENPRESEARI ESLEITUTAKO KALE GARBIKETARAKO MAKINA BATEN HORNIDURA KONTRATUA, RENTING BIDEZ, BERTAN BEHERA IXTEA ALDE BIEN ADOSTASUNAGAZ.**

**Xedea**

BBVA Renting enpreseari esleitutako kale garbiketarako makina baten hornidura kontratua, renting bidez, bertan behera ixtea alde bien adostasunagaz.

**Argudioak**

Lehenengoa: 2009ko zezeilaren 12ko Osoko Bilkureak kontratu honen baldintza-agiriak onartzea eta deialdia zabaltzea erabagi eban.

Bigarrena: Prozedura edegiagaz bideratu ostean, 2009ko apirilaren 1eko Osoko Bilkuran hornidurea behin-behinekoz esleitzea erabagi zan.

Hirugarrena: 2009ko apirilaren 16an behin-behineko esleipena kontratugilearen profilean argitaratu zan.

Laugarrena: Maitzaren 7ko Osoko Bilkuran behin betiko esleipena onetsi zan, eta 2009ko bagilaren 4ko batzarrean zuzendu zan.

Bosgarrena: Behin esleipena eginda, kontratuak formalizatzerako garaia heldu zanean, kontratuaren interpretazino arazoak sortu ziran.

**Argudioak**

Bakarra: Adierazotako interpretazino arazoak zirala-eta, txosten tekniko eta juridikoak egin ziran eta, esleipendunagaz berba egin ostean, urtenbiderik egokiena kontratua alde bien adostasunagaz bertan behara ixtea zala ikusi zan, bai esleipendunaren aldetik, bai udalaren aldetik.

Hori holan, Osoko Bilkurea da kontratua bertan behara ixteko erabagia hartzeko ahalmena daukan organoa.



## Erabagia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Udal Osoko Bilkureak:

BAKARRA: BBVA Renting enpreseari esleitutako kale garbiketarako makina baten hornidura kontratua, renting bidez, bertan behera ixtea alde bien adostasunagaz, eta, ondorioz, esleipendunak jarritako bermea itzultzea.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneraren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2009ko irailaren 18an.

ONETSIA  
ALKATEA

